

Aberri Eguna EH Iruñean

EHk ausardia eskatu die EAJri eta EAri konstituzio eta erakunde propioak osatzeko

Erakunde propioak izateko «konpromiso sendoak» behar direla erran du Otegi


Asier Azpilikueta / Iruñea

Iruñeko Anaitasuna kiroldegia goraino bete zuten EHren jarraitzaileek herenegun arratsaldean Aberri Eguna ospatzeko. Arnaldo Otegi EHko bozeramaileak bere hizketaldian erran zuen ez dagoe la «autonomismoaren eta subiranotasunaren arteko erdiko biderik».

ARNALDO Otegi azaldu zuen independentzia ez dela kapritxoa, «beharra baizik». Otegiaren hitzetan ez dago demokraten eta biolentoen arteko alderik. «Diferentzia beste zer baitetan dago», erran zuen. «Espainiarrek eta frantsesek dituzten eskubide politikoak eta zibilak eskatzen ditugu, ez besterik».

EAJ eta EA alderdiei zera esan zien Otegi: «Ezin ditugu beste 25 urte eman gure eskubideak errespetatu ditzaizuten eskatuz. Konpromiso sendoak behar dira konstituzio eta erakunde propioak izateko». Otegiendako, «estatutuek espainolismoa oxigenatzeko balio dute soilik». Gasteizko Parlamentua espainolismoaren azken bastioa izan da, denborak erakutsiko digu hori», iragarri zuen Otegi. Hori dela eta, handinahiz lan egiteko eskatu zien EAJ eta EAri.

Anaitasunako ekitaldian askok hitz egin zuten: Sinn



JOXE LACALLE

Iruñeko Anaitasuna kiroldegia jendez bete zen EHren ekitaldian.

«Datorren urtean, ezetz!»

Aurtengoa independentziaren Aberri Eguna izanen zela erran zuen iaz Arnaldo Otegi Anaitasun bertan. Hala izan ez dela ikusita, datorren urteari begira alderantziz bota zuen erroka. Nafarrek apustu positibo ei ez omen diete kasu handirik egiten: «Beraz, datorren urtean, ezetz!», iragarri zuen.

Feineko kide batek, bi iheslarik, Nekane Jurado EHko sozioekonomia arduradunak, Igor Suberriola Haika erakunde berriko kideak eta Altsasuko alkate Camino Mendiluzek. Fernando Barre-

na EHko Nafarroako parlamentarioa ere solastu zen. Barrenaren aburuz, bi aukera daude: «Orain arteko bide negargarriari jarraitu edo Euskal Herria irensten duen marko juridiko-politiko

hautsi». Bide horretan, Euskal Herriak «eskura dituen tresna guztiak» erabili behar dituela erran zuen Barrenak, «hil edo biziko kontua delako».

«Euskal Herriak abertzale guzaien beharra du», adierazi zuen Barrenak. «Elkarrekin joan behar dugu abertzaleok, baina helburua ez da batasuna. Jakin behar da nola eta zertarako joaten garen elkarrekin. Batasunari bai, baina ez Espainiako estatutuak kudeatzeko». EAJ eta EAren ausardia falta «eskandaluz-

kotzat» jo zuen Barrenak. «Denok dakigu nola iritsi ginen su-etenera: konpromisoa izan zen errezeta», gaineratu zuen.

Ekitaldian anitzek agurtu zituzten euskal preso politikoak. Kiko Martinez Apestegiak zera erran zuen, biziki hunkiturik, preso ohien ize-nean: «Bazen garaia Aberri Eguna zuekin batera ospatzeko. Baina ezin dugu auztu beste askok amets bera dute-la». Haiendako izan zen arratsaldeko txalo zaparrada luze eta beroena.

esanak

x **Arnaldo Otegi** (EH):
«Estatutuek espainolismoa oxigenatzeko balio dute soilik. Gasteizko Parlamentua espainolismoaren azken bastioa izan da, denborak erakutsiko digu hori»

«Ez dago demokraten eta biolentoen arteko alderik. Espainiarrek eta frantsesek dituzten eskubide politikoak eta zibilak eskatzen ditugu, ez besterik»

x **Pernando Barrena** (EH): «Euskal Herriak badu eskura dauden tresna guztiak erabiltzeko eskubidea, hil edo biziko kontua delako»

«EAJ eta EA alderdi politikoek ausardia falta eskandaluzkoa da»


Sopelana-ko Udala
Ayuntamiento de Sopelana
(Bizkaia)

IRAGARKIA

Sopelana-ko Udaleko Gobernu Batzordeak, 2000ko apirilaren 12an ospatutako bileran, 2000ko ekainaren 1etik urriaren 2ra (biak barne) arteko epealdian, Sopelana-ko Atxabiribil, Arriatera eta Barinatxe hondartzetan ipiniko diren denboraldietan jakineko zerbitzuen ustiaketa, lehiaketa bidez esleitzeko administratibozko-klausulen Plegua onartu zuen. Espediente hau aztertu ahal izango da Udaleko Hondartzaren Sailean. HAMABOST (15) EGUNEKO epean eskaintzak aurkeztu ahal izango dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean Iragarkia argitaratu ondoren biharamunetik zehar, administratibozko Klausulen Pleguan jarritako ordutegian.

Sopelana, 2000ko apirilak 17.
ALKATEAK.


Oñatiko Udala

IRAGARKIA

Foru Aldundiak egindako 2000. ekitaldiari dagokion udalari honetako Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Matrikula jaso da eta jendeari ezagutzera ematen zaio, lharduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko apirilaren 20eko 1/1993 Foru Dekretu Arautzaileko 17.2 artikuluan eta aipatu zergaren kudeaketa dagokionean zenbait alderdi arautzen dituen azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretuko 2.3 artikuluan ezarritakoa beteaz, ondoko arau hauen arabera:

- Non dagoen agerian: Diru Kontuhartzailetan.
- Aztertze eta, hala bada, gorkio, erreklamazioak jartzeko epea: Hamabost lanegunetako, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarki hau argitaratu ondoren eta ondorengo lanegunetik zenbatzen hasita.
- Errekurtsoa aurkezteko organoa: Gipuzkoako Foru Diputazioa.
- Erreklamazioak aurkezteko lekua: Foru Aldundiko sarrera erregistroa.

Oñatin, 2000ko apirilaren 13an.
Alkateak.


Erandio Elizateko Udala

IRAGARKIA

HIRIGINTZA ARLOKO ERABAKIAK

1.- Udaltzako Osoak, 2000ko martxoaren 30ean izandako batzaraldian, Udaltzako Planeamenduko Arau Subsidiarioen Xedapen Aldaketa bati hasierako onarpena ematea erabaki zuen. Xedapen Aldaketa hori udal zerbitzu teknikoek idatzi dute Erandio Goikoan bizitegiarako lurzoru hiritarreko jarduketarako eremua edatu eta etxebizitza sozialak eraikitze.

2.- Udaltzako Osoak, 2000ko martxoaren 30ean izandako batzaraldian, Udaltzako Planeamenduko Arau Subsidiarioen "I" Sektorari buruzko Xedapen Aldaketa hasierako onarpena ematea erabaki zuen, txosten teknikoan ezarritako betebeharrak izanik. Xedapen Aldaketaren proposamena Gabriel Salaberri jaunak aurkeztu zion udalari "Jauregi Zahar Promoción y Gestión Inmobiliaria, S.L." elkartearen izenean.

Esandako espediente horiek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren, espedienteak jendaurrean izango da hilabetez.

Ezarritako epe horretan, espedienteak udaltzako Hirigintza Sailean izango dira aztergai, bidezkoztat irizitako alegazioak aurkezteko.

Erandioko Elizatean.
MIKEL ARIETA ARAUNABENA BUSTINZA.
Alkate-Udalburua.


Erandio Elizateko Udala

IRAGARKIA

BEKOETXE BIDEAK ETA DESANEXION ETA OBIETA KALEEK MUGATZEN DUTEN ALTZAGAKO 48 ZENBAKIDUN ETXEN MANTZEARI BURUZKO XEHETASUNEZKO AZTERLANARI HASIERAKO ONARPENAK.

Alkate-Udalburuak, martxoaren 24an emandako 491/2000 Dekretuaren bidez, CONSTRUCTORA ZURBARAN S.A. merkataritza elkarteak aurkeztutako Xehetasuneko Azterlanari hasierako onarpena eman dio, Xehetasuneko Azterlan hori Bekoetxe bideak eta Desanexion eta Obieta kaleek mugatzen duten Altzagako 48 zenbakidun etxemantzeari buruzkoa da eta udal zerbitzu teknikoek egin dituzten txostenetan jasotako baldintzak bete behar dituzte.

Dagokion espedienteak jendaurrean izango da Udaltzako Hirigintza Sailean iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo hogeit eguneko epea amaitu arte, espedienteak aztertu eta bidezkoztat jo daitezkeen alegazioak aurkezteko.

Erandioko Elizatean.
MIKEL ARIETA ARAUNABENA BUSTINZA.
Alkate-Udalburua.


Erandio Elizateko Udala

IRAGARKIA

UDAL PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN XEDAPEN ALDAKETARI HASIERAKO ONARPENAREN EMATEA.

Udaltzako Osoak, 2000ko urtarrilaren 27an izandako batzaraldian, Udaltzako Planeamenduko Arau Subsidiarioen Xedapen Aldaketa bati hasierako onarpena ematea erabaki zuen, "Cenemesa" merkataritza elkartearen izandako instalazioek hartzen duten lurzoruari eta 4 zenbakidun Jarduketara Aldeari dagokion Xedapen Aldaketa, hain zuzen ere.

Onarpen horrek, udal zerbitzu teknikoek emandako txostenetan azaldutako iradokizun eta zuzenketak bete beharra zuen baldintza. Interesatuek tramite hori bete eta bidezko diren aldaketak egin ondoren Xedapen Aldaketaren beste agiri bat aurkeztu dutenen gai honi buruzko espedienteak jendaurrean erakutsiko dugu HILABETEZ. Iragarri hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetik aurrera kontatuko da hilabete epea eta udaltzako Hirigintza Saileko bulegoetan espedienteak aztertu eta egokitzat irizitako alegazioak aurkeztu ahal izango dira.

Erandioko Elizatean.
MIKEL ARIETA ARAUNABENA BUSTINZA.
Alkate-Udalburua.